



Euskal Herriko Herri Arteko Txapelketa eskura dute Aurrerakoek

LEITZA ▶ Berrizen aurka
jokatuko dute bihar
Arrasaten Aresoko eta
Leitzako mutilek


BAIKOR ▶ Finalaren
atarian Andres Aranburu
botileroak «aukera
handiak» dituztela dio ▶ 7



Euskal Herriko Herri Arteko Txapelketako finala jokatuko duten sei pilotariak. N. GARZIA

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶

Udako HITZA Argazki Lehiaketa
irailean hasiko da, sari ugarirekin ▶ 2



E. EZEIZA

**EAE: «Lehen Osoko Bilkura
sekretupean egin dute»**

TOLOSA ▶ Udal ordezkarien «jarrera» gaitzetsi
dute eta «herritarrek asaldatzeko moduko
neurriak» hartu dituztela salatu dute ▶ 3

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶

Abuztuko jaien agenda ▶ 5

EUSKAL JAIA
Billabona

Uztailak
28
Larunbata

Billabonako
Plazan

“SALTO ETA JAUI, EUSKARAZ BIZI!”

18:00etan Sagardo dastaketa pintxozen
laguntzarekin Laja, Eguren eta Ziular trikitilariak elaiturik

19:30etan BERTSOLARIAK:
Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso

20,00etan ERROMERIA:
Laja, Eguren eta Ziular trikitilariak

21,00etan Afari herrikoia plazan:

00'00etan ERROMERIA: Patxi eta Konpania

Zikiro Jana

Garaiko euskal jantziekin parte hartzera animatzen zaituztegu

Zikiro janerako txartelak salgai: 20€

HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶

Udako uneak klisk batean

Irailean VI.HITZA Argazki Lehiaketa hasiko da, sari potolo ugarirekin



Inko Iriarte tolosarrak irabazi zuen V. HITZA Argazki Lehiaketa. Marokoko Ipar mendebaldeko kostan ateratako argazkiarekin aurkeztu zen.

ERREDAKZIOA

Asko dagoeneko udako opor egunez gozazten ariko zarete, eta beste askok, berriz, gaur hartuko dituzue edota hartzeaz izango dituzue hainbeste desiatutako oporrak. Ohikoa den moduan, opor egunak iristea-rekin batera hasten da TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN argazki lehiaketa. Beraz, ekainetik irailera bitartean ateratako argazkiekin bertan parte hartzeko aukera izango duzue.

Irailean izango da argazkiak bidaltzeko aukera, eta guk jasotzen ditugun heinean egun-

karian publikatuko ditugu. Hori bai, publikatuko diren argazkien kopurua mugatua denez, ahalik eta azkarren bidaltzea komeni da. Dena den, egunkarian argitaratuko ez diren argazkiak lekua izango dute gure webgunean, han zintzilikatuko baititugu VI. HITZA Argazki Lehiaketan parte hartuko duten argazki guztiak, eta denak lehiatuko dira sarien bila. Argazkiak bidaltzeko posta elektronikoz (tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info), posta arrunta erabiliz (Araba etorbidea 5, atzea. Tolosa, 20.400 helbidera bidali eta zehaztu Argazki Lehiaketarako

dela) edota HITZAREN egoitzetara (lehen aipaturikoa edo Leitzakoa) ekarriz egin ahaliko duzue.

Sari bikainak

Irailean zehazten joango gara parte hartzeko epeak zeintzuk izango diren, eta orduan azalduko dugu baita ere finalera iritsi direnak noiz argitaratuko ditugun eta noiz izango duten irakurleek botoa emateko aukera, azkenean, beti bezala, irakurleek izango baitute azken hitza.

Boto gehien jasotzen dituen argazkiaren egileak Mendexa-

Lekeitioko Villa Itsaso hotelean bi pertsonentzako asteburu bat irabaziko du. Bigarrenak Zumaiaiko Talasozelai talasoterapia zentroan bi lagunentzako zirkuitua eta hirugarrenak Tolosako Denak tabernan lau pertsonentzako afaria irabaziko du. Horretaz gain, parte hartzen dutenen artean eta botoa ematen dutenen artean HITZAKO materiala zozketatuko dugu.

Ez dago beraz aitzakiarik HITZA Argazki Lehiaketan parte ez hartzeko, izan ere, argazkiak egunkarian publikatzeko aukera izateaz gain, agian irabazle suertatu eta sariren bat jaso ahaliko duzu.

bi pertsonentzako asteburua lortuko du.

- ▶ Bigarren saridunak Zumaiaiko Talasozelai talasoterapia zentroan bi pertsonentzako zirkuitua irabaziko du.
- ▶ Hirugarrenak Tolosako Denak tabernan lau pertsonentzat afaria lortuko du.
- ▶ Argazki Lehiaketan parte hartzen duten guztien artean HITZAKO produktuak zozketatuko ditugu. Halaber, botoa ematen dutenen artean ere zozketatuko ditugu HITZAKO produktuak.



HITZAKO produktuak. I.T.

VI. HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶ OINARRIAK

BALDINTZAK

- ▶ Argazkiek udako oporraldikoak behar dute izan.
- ▶ Argazkiak paperean, diapositiban eta formatu digitalean onartzen ditugu.
- ▶ Argazki digitalek, gutxienez, ezaugarri hauek izan behar dituzte: 20 zentimetrotako zabalera eta 300eko bereizmena.
- ▶ Jarri behar diren datuak: egilearen izen-abizenak, helbidea eta telefona. Horrez gain, argazkia non eta noiz egin den adierazi beharko da, eta zer ikusten den ere labur idatzi.

- ▶ Jasotako argazkiak arbioban gordeko ditugu, eta HITZAK behar dituenean argitaratu ahal izango ditu.
- ▶ Jasotzen diren argazki guztiak sartuko dira lehiaketan, baina HITZAK jasotako lehen 50 argazkiak argitaratuko ditu.
- ▶ Argazki guztiak webgunean izango dituzue ikusgai.
- ▶ Parte-hartzaile bakoitzak argazki bakarra bidali ahal izango du.

SARIAK

- ▶ Irabazleak Mendexa-Lekeitioko Villa Itsaso hotelean

TOLOSA ▶

Gaur izango da Paleta Txapelketako finala

ERREDAKZIOA

Gaur jokatu dute Paleta Txapelketako finala Berazubiko pilotalekuan. Baina lehendabizi, 18:00etan 3. eta 4. postuak izango dira lehian, eta ondoren jokatu dute finala.

Horretaz gain, berrikuntzarik ere izango da gaurkoan, izan ere, beteranoen arteko desafio bat antolatu dute. Hain zuzen ere, Artolak (54 urte) eta Aizkorbek (69 urte), guztira 9 aldiz Tolosa CFren Paleta Txapelketan garaile suertatutako bikotea, Garcesek (58 urte) eta Gastearnak (55 urte) osaturiko bikotea ariko dira lehian. Bikote garailearentzat urdaiazpiko eder bat izango da sari bezala. Beraz, amaitzeko modu berezia izango du aurtengo txapelketak.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
- ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurrumendi egoitza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

VILLABONA ▶ SANTIO JAIK



Bizikletak, kartak, joko garbia... Koadrilen Egunaren aurrekoan

Imanol Garcia ▶ Aurrera egiten ari dira Villabonako Santio jaiak. Atzo, besteak beste, haurrentzako txirringulari proba, mus txapelketa eta joko garbi partidak izan ziren. Txirringulari proban 100 hur inguruk hartu zuten parte, 4tik 14 urte bitartean. Musean 42 bikote aritu ziren Berdura plazan eta joko garbian, gaztetxoan partidan Villabonako Behar-Zana Oiarzungo tadearen aurka aritu zen —argazkian—. Gaur

Koadrilen Eguna izango da eta mila lagun inguru bilduko dira Etxeondon bazkal-tzen. Bihar, besteak beste, goizean finalak jokatuko dituzte Amasan. 11:00etan, palaz binaka Etxaniz eta Camposek Lazkano eta Urdanpiletaren aurk lehiatuko dira. Ondoren federatu afizionatuen eskuz binakako partida jokatuko dute Behar-Zanako Lizaso eta Txapartegik Añorgako Insausti eta Eizagirreraren aurka. I. GARCIA

VILLABONA ▶ XI. GARAGARDO AZOKA

Irrintzik jendearen «erantzuna eta portaera» eskertu ditu

Balantze «oso positiboa» egin dute Garagardo Azokako antolatzaileek; iazko datuak zertxobait igo dira

IMANOL GARCIA

«Oso gustura gaude azokarekin», azaldu du Agustin Laskurain Irrintzi elkarteak. Villabonako XI. Garagardo Azoka egin dute aurtengoan eta jendearen «erantzuna eta portaera» eskertu ditu Irrintzi elkarteak. Izan ere, iazko datuak zertxobait gaituzte dituzte.

Orain arteko ukondo gehienak zerbitzatu dituzte aurtan, guztira 2.520. Bestelako janari motetan ere gora egin dute zerbait. Garagardo kontsumoaren kopuru zehaztik ez dute oraindik baina iazko 1.300 litroak gaituzte dituzte ere. «Oso posi-

tiboa da egin dugun balantzea», dio Laskurainek. «Iazkoan aurreko azokaren datu berdina izan genituen. Bazurdiaren gaina jo zuela azokak, baina aurtan hobetu egin dugu».

Villabonako Garagardo Azokako ukondoek fama omen dute eta askok, azoka egin den Txermingo Ikastolaren azpian lekuri izan ez eta elkarteren batera eramaten zuten bertan dastatzeko. Jendea aurtan ere mugitu da lekua hartzeko. Esaterako, larunbatean 19:30erako ez zegoen lekuri eseritzeko. Halere, larunbatean iaz baino jende gutxiago izan zen. Hori bai, ostegunean, ostirale-

an zein igandean aurreko urteetan baino garagardozaile gehiago izan ziren.

Irrintzi elkartetik ere nabarmendu dute jendeak izan duen portaera. «Ez da istilurik izan eta horrelako ekitaldi batean eskertzekoa da», dio Laskurainek. «Egia esan jendea zoragorri portatu da eta ez da egon istilurik ezta sortuko zen zantzurik ere. Azoka itxi egin behar genuenean ere ez da arazorik izan».

Desmuntatzeko lanak azkar egin dituzte, egun batean bukatu baitzuten eginbeharrekoa. Toldo batzuk bertan gelditu dira festetan erabiltzeko.

Azokan egin ohi den zozketaren sariduna ez da azaldu. 2.606 da zenbakia eta Tenerife (Espainia) bi laguntzako aste beterako bidaia da saria. Sariduna ez bada azaltzen, irailen Irrintzi elkarteak antolatzen duen Azoka Berezian bantzen diren txartelean egin dute berriro zozketa.

AIZTONDO ▶



Haurrak Udaleku Irekien mementu batean. HITZA

Udaleku Irekien balantze «oso positiboa»

Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak «oso balantze positiboa» egin du bukatu berri diren Udaleku Irekiei buruz. 3 eta 12 urte bitarteko 50 haurrek hartu dute parte. Ohi denez, herriri ibili dira: Alkizan, Adunan eta Larraularen. Tolosako Zuloaga Txikin gau bat pasatzen egon dira ere. Sanferminak urtero herri desberdinean ospatzen dituzte eta aurtan Alkizan izan dira. «Beguraleekin egindako balantzea ikusita espero genuen bezala aterata da dena», azaldu dute Mankomunitateko dinamizatzaileek.

ANOETA ▶

Abuztuan itxita izango da KZgunea

Oporrak direla-eta Anoetako KZgunea itxita egongo da abuztu guztian. Bere ateak irekiko ditu berriro irailaren 11tik aurrera ohiko ordutegian, hau da, astearte, asteazken eta ostegunetan, 11:00etatik 13:00etara.

ADUNA ▶

'Bulubus' ikuskizun berezia bihar Asvinenean

Bulubus ikuskizuna emango dute, bihar, 22:30ean, Asvinenean. «Titiritero ezberdinek, leku ezberdinetatik etorritakoek, teknika ezberdinekin, ikuskizun ezberdin bat eskainiko dute», diote Asvineneatik.

AITZOL
TABERNA

- Eguneko menuak
- Otarkekoak • Pintxoak

Etxeondo, 1behea • Villabona



JAIK ▶

Abuztuko parranden agenda

Areson, Albizturren, Bidanian, Goiatzen, Baliarrainen, Hernialden eta Adunan ez da giro

EGITARAUAK ▶ HERRIZ HERRI

ARESO

ABUZTUAK 14, ASTEARTEA

12:00. Etxafuegoa.
▶ Ondoren, kalejira herrian trikitilariekin. Eskea baserrietan Felix eta Begoña trikitilariekin.
18:00. Haurrentzat jokoak plazan (Guraso Elkarteak).
▶ Gero, merienda bikientzat.
18:30. Patata tortilla lehiaketa.
20:30. Herri afaria plazan.
23:30. XVII. Mus Txapelketa herrikoia udaletxean.
00:00. Dantzaldia Felix eta Begoña trikitilariekin.

ABUZTUAK 15, ASTEAZKENA

09:30. Diana txistulariekin.
11:00. Meza: Udal ordezkariei lagunduaz dantzariak arkua egingo dute.
▶ Hamaiketako eskainiko du Udalak plazan.
12:00. Herriko dantzariak.
13:00. Pilota partidak.
18:30. Aizkolariak.
▶ Otaño-Nazabal Larretxea-Rekondoren aurka.
20:00. Dultzaineroak.
00:00. Dantzaldia Jagoba, Amets eta Josurekin.

ABUZTUAK 16, OSTEGUNA

09:30. Diana trikitilariekin.
11:00. Puzgarriak eta jolasak.
13:00. Gazteboak pilotan.
16:00. Plater-tiroketa herrikoia Usoa elkarteak antolatua.
19:00. Patxin eta Potxin pailazoak plazan.
20:00. Imuntzo eta Beloki.
21:30. Herri afaria, Guraso elkarteak antolatuta.
00:00. Imuntzo eta Beloki.

ABUZTUAK 17, OSTIRALA

09:30. Diana txistulariekin.
11:00. Eskea herriko etxeetan; koadrilak ere bertan ibiliko dira.
15:00. Paellada erraldoia koadrila guztientzat, plazan.
17:30. Jokoak lagun artean antolatuta.
18:30. Aizkolari handiak.
▶ Ondoren, *Brake Dance* eta graffiti erakustaldia.
00:00. Tximeleta taldea.
▶ Egun osoan Sakanako Impresntables txaranga.

ABUZTUAK 18, LARUNBATA

09:30. Diana trikitilariekin.
▶ Goizean Aresoko txekorra erreko dute plazan.
14:00. Herri bazkaria Pake Toki eta Larrea elkarteek antolatuta, Peñagarikano eta Irazu bertsolariak alaituta.
18:00. Amateur mailako pilota partida; Irazu eta Peña botilero.



Kiki, Koko eta Moko Hernialden izango dira abuztuaren 14an. E. EZEIZA

19:00. IV. Sagardo dastaketa, txistorra eta sardina erreekin.
▶ V. Txapel Jaurtiketa plazan.
▶ Ondoren sari banaketa guztiak.
20:00. Kapoeira erakustaldia.
00:00. Gozategi taldea.
▶ Ondoren, DJ emanaldia.
▶ Iluntzeetan buruhandiak eta goxokiak banatuko dituzte.

HERNIALDE

ABUZTUAK 12, IGANDEA

12:00. Festen hasiera.
12:30. Meza Nagusia.
Jarraian. Sagardo dastaketa.
Ondoren. Bazkaria Usandizaga eta Oiarzabal bertsolariekin.
18:30. Herriarren arteko kirolak: harri-jasotzaileak eta aizkolariak. Iluntzean, trikitixa.

ABUZTUAK 13, ASTELEHENA

Egunean zehar. Frontenis txapelketa herrikoia.
Iluntzean. Lehiaketa gastronomikoa.
Jarraian. Zahagi ardoa.
Gauean. Trikitixa gaupasarako.

ABUZTUAK 14, ASTEARTEA

11:00. Suziriak eta buruhandien kalejira.
14:00. Umeen bazkaria.
18:00. Kiki, Koko eta Moko.
Iluntzean. Zahagi ardoa.
Gauean. Unsain Anaiak.

ABUZTUAK 15, ASTEAZKENA

12:30. Meza ondoren hamaiketako.
18:30. Segapustua: herriarren arteko dema.
22:30. *Bota Patsa!* antzerkia (Kutxak finantzatuak). Ondoren, trikitixa.

GOIATZ

ABUZTUAK 14, ASTEARTEA

14:00. Suziriak eta ezkirolak.
17:00. Umeentzako jolasak.
20:30. Meza.
21:00. Afaria Telleriak eta Lizasok alaituta.
▶ Egunean zehar puzgarriak.

ABUZTUAK 15, ASTEAZKENA

11:00. Meza Nagusia.

Ondoren. Helduentzako hamaiketako.
12:00. Senior mailako pilota partidak.
18:00. Zezen txikiak.
19:00. Sagardo dastaketa pintxoek lagundurik.
23:00. Ansorregi eta Larrañaga.

ABUZTUAK 18, LARUNBATA

16:00. V. Mus Txapelketa. Izen-ematea ordu erdi lehenago frontoian. 20 euro bikoteko.
23:00. Bertsolari handiak.
Ondoren. Saioa, Alabier eta Lutxurdixo trikitilariak.

ABUZTUAK 19, IGANDEA

12:00. Meza Nagusia.
Ondoren. Herriko dantzariak eta poteo herrikoia.
19:00. Aizkolariak eta harri-jasotzaileak, eta herrikoak zaku eta lokobekin.
23:00. Kupela taldea.

ALBIZTUR

ABUZTUAK 14, ASTEARTEA

19:30. Kanpai doinuak, suziri eta bonben jaurtiketa. Kalejira buruhandi eta txistulariekin.
20:30. Meza, Agur Erregina.
21:00. Barrikotea eta patata tortilla lehiaketa.
22:30. Bertso jaialdia lau bertsolari handirekin.
Ondoren. Ansorregi, Larrañaga eta Lutxurdixorekin erromeria.

ABUZTUAK 15, ASTEAZKENA

Goizean. Txistularien kalejira.
11:15. Meza Nagusia.
Ondoren. Pilota eta adinekoentzako hamaiketako.
18:30. Herriarren herri kirolean: harri-jasotzaileak eta aizkolariak, eta Landatarrak.
23:00. Laja II.a eta Narbaiza.
00:00. Basurde harrapaketa.
Gero. Laja II.a eta Narbaiza.

ABUZTUAK 16, OSTEGUNA

12:00. Toka herrikoen artean.
14:00. Gazteen bazkaria.
18:00. Trikipotea, eta koadrilen arteko jokuak.
23:00. Elustondo anai-arrebak.

ABUZTUAK 18, LARUNBATA

16:00. Jolasak eta puzgarriak.
21:00. Zikiro jatea.
Ondoren. Malbadi eta Arandia anaiekin erromeria.

ABUZTUAK 19, IGANDEA

11:15. Meza Nagusia.
Ondoren. Pilota partidak.
18:00. Benito Ross: triala.
19:30. Sagardo Txapelketa.
22:00. Afariaren zozketa.
23:00. Saioa, Alabier eta Lutxurdixorekin erromeria.

BALIARRAIN

ABUZTUAK 14, ASTEARTEA

11:00. Suziri eta zintzarriak.
12:00. Pilota partidak.
Ondoren. Paella lehiaketa sagardo dastaketarekin.
17:00. Kuko, Truko eta Volenbaider pailazoak.
Iluntzean. Trikipotea, Josu, Jagoba eta Ametsekin eta herriko bertsolariak.
Ondoren. Zahagi ardoa plazan.
Bukatzeo. Josu, Jagoba eta Ametsekin goizaldera arte.

ABUZTUAK 15, ASTEAZKENA

11:30. Meza Nagusia.
12:00. XLI. Txirindulari igoera, XIX. Nazabalen oroimenez.
Ondoren. Unsain anaiak.
18:00. Gipuzkoako Trontza eta Koskol biltze Txapelketaren finala.
Ondoren. Unsain anaiak.
23:00. Txan Magoa.
Ondoren. Unsain anaiak.

ABUZTUAK 16, OSTEGUNA

11:00. Meza Nagusia.
Ondoren. Adinekoentzako hamaiketako.
12:00. Herri mailako maratoia eta Toka Txapelketa.
16:00. Puzgarriak eta mus txapelketa herrikoia.
18:00. Umeentzako jolasak.
21:00. Herri afaria.
Ondoren. Legoya taldea; tartean handientzako jolasak.

ADUNA

ABUZTUAK 14, ASTEARTEA

19:00. Triki poteoa.
20:00. Txupinazoa.
20:30. Herri afaria.
Ondoren. Laket taldea.

ABUZTUAK 15, ASTEAZKENA

07:00. Diana.
11:00. Meza nagusia.
12:00. Umeen dantza.
12:30. *Axeri* dantza.
18:00. Herriarren herri kirolak.
22:00. Pilota: Antxia-Arrebe eta Lasa-Errandonea.
Ondoren. Asto karrera.
Gero. DJ Bull.

ABUZTUAK 16, OSTEGUNA

05:30. Txokolatada.
06:00. Oilasko biltzaileak.
12:30. Oilasko jokuak.
Ondoren. Dantza-soka.
Jarraian. Umeen bazkaria.
16:00. Puzgarriak eta jolasak.
20:30. Biltzaileen afaria.

BIDANIA

ABUZTUAK 22, ASTEAZKENA

12:00. Suziriak eta ezkirolak.
Ondoren. Txikiteoa trikitilariekin.
Gero gazteen arteko jokoak.
23:30. Trikitilari handiak.

ABUZTUAK 23, OSTEGUNA

10:00-12:00. Ume jolasak eta txupinazoa.
16:00. Zezen txikiak.
20:00. Salbea.
21:00. Herri afaria.
22:30. Pilota partidak.
Ondoren. Izer eta Alabier.

ABUZTUAK 24, OSTIRALA

10:30. Meza Nagusia.
Ondoren. Dantzariak, helduentzako hamaiketako, eta ganadu feria.
18:00. Herrikoak pilotan.
22:30. Idi para eta zaldiaren erakustaldia.
Ondoren. Trakets.

ABUZTUAK 25, LARUNBATA

11:00. Meza. Ondoren, herriko dantzariak, bola eta toka txapelketa eta helduentzako hamaiketako: Saiaz elkarteak.
17:30. Eriz Magoa.
22:30. Bertsolari handiak.
Ondoren. Kupela.
▶ Egunean zehar uso kume tiraketa izango da.

ABUZTUAK 26, IGANDEA

11:00. Meza. Ondoren XXII. Herri Krosa.
17:00. Zaldi karrera.
Ondoren. Herri kirolak.
22:00. Izer eta Alabier.

ZABALA DESGUAZEA

- Plan Prebererako zertifikatuak egiten ditugu.
- Txatarrerako kotxeak biltzen ditugu.

Tel./Faxa: 943 67 17 90 • 696 593 347
Beotibar Industringunea, 18 • BELAUNTZA

LEABURU ▶ UDALA

Bilkura bertan behera geratu da, nahiz eta konpromisora iritsi

Alkaterik gabe jarraituko du Udalak, horretaz gain, bilkuran Bide Berriakeko 4 kidek udal karguei uko egin zioten



Bide Berriak Hautesle elkarteko kide eta Leaburu-Txaramako Udaleko hiru zinegotziak. A. IMAZ

ASIER IMAZ

Herenegun Leaburu-Txaramako udaletxean bilkura burutu zuten. Bertan, Bide Berriak Hautesle elkarteko kideak eta ANV-EAEn zerrendako lau lehenak elkartu ziren. Hauetaz gain, herritarrak ere elkartu zirelarik udal aretoan. Bilkura ordea, bertan behera geratu zen. Udalak berri, alkaterik gabe jarraitzen du, nahiz eta bi alderdiak amaieran akordio batetara iritsi.

Bilkurako lehen puntuan, Bide Berriakeko lau zerrendakideek uko egin zioten Udalan karguak hartzeari. Horren ondorioz, ekainaren 19an egi-

niko bilkuran kargua hartu zuten hiru zinegotziz osatua jarraituko du Leaburu-Txaramako Udalak.

Lehen puntuaren amaieran, ANV-EAEn zerrendakideek hitza hartu zuten, «kargua utzi duten lau horiei zorianak emateko». Ondoren «zerrendan ordeko bezala daudenekin zer egiteko asmoa» zuten galdetu ziren Bide Berriakeko kideei, alkatetza hartzea pentsatzen al zuten galdetuaz jarraian. Lehen puntu honen amaieran, bi zerrendetako kideen artean eztabaida hasi zen. Amaieran, luze hitz egin ondoren, akordio batetara iritsi ziren Bide Berriak eta EAEn kideak. Alde

bakoitzeko 2 kidez osatutako taldea, Gipuzkoako Foru Aldundira joango da, «herriaren egoera aztertu eta konponbidea bilatzeko». Udala beraz, ekainaren 19aren ondoren bezala geratzen da, 7 kargutatik 3 bakarrik daude beteak. Bi aldeak ados agertu ziren, «herriak hautatutako ordezkape-na aurrera eramateko». Arazoak ordea, 4 (ANV-EAE) eta 3ko (Bide Berriak) banaketa nola egin aztertzeke garaian agertzen dira. EAEn 182.2 artikulua aplikatzeko eskatzen duen bitartean, BBko kideek Aretxabaletako adibidea jartzen dute eredu. Horretarako alkate kargua hartu beharko litzateke.

LEITZA ▶ KULTURA



Dantzan ikasi nahi duten erraldoiak ikusi ziren karrikan

A. Imaz ▶ Herriko lau mutilek, zenbait gurasoren laguntzarekin erraldoiak egin dituzte, gero hauekin dantzatzeko ikasteko. Eskulan ordu ugari sartu ondoren, helburua musikaren erritmoan bizi ematea dute beraz. Herenegun iluntzean, herrian barrena ikusi ziren zinamarako bidean, baina oraindik ezin da esan dantzan aritu zirenik. Izan ere, kotxeetan ez zirenez sartzen, oinez eraman behar izan zituzten zinamara. NAIARA GARZIA

AMEZKETA ▶

Gaur eta bihar Joxean Tolosa Txapelketa

Amezketako XIX. Joxean Tolosa Txapelketako partidak jokatu dira gaur eta bihar kadete, gazte eta nagusien mailatan. Gaur 21:00etan hasiko dira Mendinueta-Alustiza; Albarado-Sagaseta eta Jauregi-Sotoren arteko lehiakin. Bihar 16:00etan eta 21:00etan buruz-buruko sei partida jokatu dituzte.

GAZTELU ▶

Gabirondo eta Goikoetxeari zorianak

Gazteluko Udalak zorianak eman nahi izan dizkie herriko bi segalariei, aurreko igandean, Oartzunen Euskal Herriko Txapelketan izan zirelako Andoni Goikoetxea eta Joxe Gabirondo. Laugarren eta hirugarren postua lortu zuten. «Zorianak eta aurrerantzean ere horrela segi. Mila esker».

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

ANDRES ARANBURU ▶ BOTILEROA

«Berrizkoek ere bihar irabazteko jokatu egin beharko dute»

Andres Aranburu Aurrerako botileroa da eta bihar ere Berrizen aurka Aurrerako mutilen ondoan egonen da

NAIARA GARZIA

Andres Aranburuk (Leitza, 1966) lau urte daramatza Aurrera Pilota Eskolakoekin lanean. Finalaren atarian, Nafarroako eta Euskal Herriko Herri Arteko txapelketen inguruan mintzatu da.

Nafarroako Herri Arteko txapelketa hasi zenean, zer helbururekin ekin zenioten denboraldiari?

Egia esan, ez genuen pentsatzen finalera iritsiko ginenik, gainera ezusteko batzuk ere izan ziren. Burlataren aurka galdu genuenean bezala. Pausoz pauso joan gara eta neurri handi batean, txikiengatik gau-de hemen.

Izan ere, Nafarroakoan lau kategori ezberdin daude, baina Euskal Herrikoan, hiru baino ez daude.

Bai, Euskal Herriko Txapelketan txikienek ezin izan dute parte hartu. Nafarroako Txapelketan zehar hor egon dira eta oso maila onean jokatu dute. Oso lan ona egin dute.

Nola ikusi dituzu Leitzako mutilak Nafarroako Txapelketan zehar?

Bikote guztiek maila polita dute, baina Mikel Iriartek egin duen txapelketa azpimarratu nahiko nuke. Iriarte egondu da lehendabiziko partidatik bukareraino oso maila onean. Olazabal ere azkeneko partidetan oso ongi ibili da, orain pixkanaka-pixkanaka errekupezen ari baita. Hala ere, finala jokatu behar duten pilotariek gain pilotari gehiagok parte hartu dute txapelketan zehar eta haiengatik ere gaude hemen.

Nafarroakoan mementu kritikoa Burlataren aurka galdu zenuenean izan zenuten?

Bai, hor egun txarra izandu genuen. Burlataren aurka galdu genuenean eta nahikoa sufritu genuen.

Noiz hasi zineten pentsatzen beharbada finalera iritsiko zinetela?

Azkeneko mementuraino ez dugu horretan pentsatu. Sufrিতා iritsi gara, nahiko lanarekin. Lizarra ere, esaterako, aur-

kari gogorra izandu da, lehen-go urtean Euskal Herriko finala ere jokatu zuten.

Talde lana ezinbestekoa da horrelako txapelketetan, ezta?

Bai. Leitzan ere lehenago profesionalak izandu dira hemen jokatzeko, Ibai, Oinatz, Abel... Baina hemen pilotari batek ez du deus egiten, azken batean talde lana da eta. Batzutan batzuk nabarmentzen dira eta besteak ahaztu egiten dituzte, baina azken batean pilotari batek edo bi pilotarik bakarrik ez lukete ezer egingo, talde lana ezinbestekoa da.

Nafarroako finala nolako izandu zen?

Ni lasai nengoan egia esan, baina tentsio handia zegoen. Gero herriko jende asko joan zen eta giroa oso polita izandu zen.

Euskal Herriko Txapelketako 2 partida jokatu dituzue. Finalerako aukerak ikusten al zenituen?

Bai, baina hiru mailatan irabaztea zaila da. Halere, espero genuen bezala joan da.

Azkeneko norgehiagokan jende asko bildu zen pilotalekuan.

Bai. Jende aldetik oso gustura gelditu ginen eta orain finalean ere jende asko joatea espero dugu.

Nafarroko eta Euskal Herriko finala jokatzeko ez da urteroko gertatzen.

Ez, ilusioz beteta gaude, baina hemen lana urte guztian egin behar da, eta urtero-urtero gainera. Horrelako txapelketa bat jokatzeko eta maila on bat emateko urteetako lana egin behar duzu, eta hor behar dugu laguntza, eguneroko lan horretan.

Biharko finala nola ikusten duzu?



HITZA

Zaila izanen da. Nik badakit guretzat zaila izanen dela, baina aurkariek ere irabazteko jokatu egin beharko dute. Azkenean final bat da, eta mutikoak ez daude final handi hauetara ohituta, eta nerbioak asko esan nahi dute. Nerbio horiei zeinek hobeki eusten dien, nik uste horrek baldintzatuko duela txapela.

Botileroa zaren heinean, eguneroko lanak ere garrantzia du zuretzako, ez?

Bai, nire lana egunerokoa da, eta hori maila guztietan pasatzen da. Nahiz profesionaletan edo edozein mailatan, eguneroko lana ez badago eta pilotariak ez badu sinesten botileroarengan, alferrikakoa da. Pilotariak fedea behar du botileroarekin, eta ez badago hori, ez dago deus egiterik.

Hori maila guztietan gertatzen da.

Lau urte daramatzazu Aurrera Pilota Eskolan lanean.

Bai, orain poliki-poliki uzten ari naiz, lana dela-eta ezin ailegatu ibiltzen naiz eta, baina oraindik jarraitzen dut.

Pilotariak nola ikusten dituzu?

Asteartean entrenatu genuen eta frontoiarekin eta materialarekin arduratuta daude. Orain arte materiala klubak jartzen zuten, eta piloten hautaketa bat izaten zen, baina orain federazioak jartzen ditu, eta orduan kezka hori beti izaten da, zer pilota izanen den, pilotalekua nola ibiliko den... Baina bestela lasai daude, eguna iritsi arte, behintzat, gero beharbada pilotalekua beteta ikusten dute-nean... ◀

Arrasateko finalak sortutako ikusmina

Bihar jokatu dute Arrasaten Areso eta Leitzako mutilak Euskal Herriko Herri Arteko Txapelketaren finala. Norgehiagokak 10:30an hasiko dira, eta Arrasatera joateko Aurrerak eta Goiko enpresak, pilotarien babesleak, autobusa antolatuko dute. Autobusa 8:45ean aterako da Amazabal pilotalekuko ataritik, eta finaletik bueltan bazkaria egiten dute (Nafarroako Herri Artekoaren finalean bezalaxe) Mendi-Gorri elkartean.

Pakito Sagastibelza pilota eskolako arduradunak azaldu duenez, jada autobus bat osatu dute eta oraindik jende gehiago izena ematen ari da. «Ez dakit bigarren bat jarriko

dugun edo ez. Irtenbideren bat bilatuko dugu nola edo hala».

Sagastibelza finalaren inguruan mintzatu da. «Nik finala oso parekatua ikusten dut, eta nire ustez azkeneko partidaren erabakiko da dena, bai alde batera edo bestera. Konfiantza handiarekin gaude. Bada-kigu Berrizek seniorretan bikote oso bizkorra duela, baina guk ere bai. Guk irabazten badugu, jokatu egin beharko dute gureek eta besteek irabazten badute ere, asko jokatu beharko dute. Ziur gaude hiru partidak aurrera aterako ditugula».

Halere, Nafarroako Herri Arteko finalean baino lasaiago



Alduntzin, Jaunarena, Goikotxea, Aranburu, Olazabal eta Iriarte. n.g.

daudela adierazi du. «Final horrek esperientzia eta lasaitasuna eman dizkigu, eta txapela horrekin askoz ere lasaiago sentitzen gara. Finalari begira tentsioa denok daukagu, baina Labriteko finalean baino lasaiago gaude».

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. Zer iruditzen zaizu Tolosako Usabal kiroledegiko igerilekuan olatu artifizial batt egitearen ideia? Sartu gure webgunean eta eman bertan zure botoa. Horretaz gain, zure iritzia idazteko aukera eskaintzen dizu webguneak.

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2007ko uztailaren 27a, ostirala ▶ V. urtea

GAURKO EGURALDIA goizez arratsaldez beroena **24** hotzena **17**

BIHARKO EGURALDIA goizez arratsaldez

'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Alzo, Amezketza, Añoeta, Areso, Asteasu, Baillarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaiztegieta, Inura, Leaburu, Leizta, Lizartza, Orea, Tolosa, Villabona, Zuzurkil
HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA **902 82 02 01**
(balantza argitzeko, harpidetun egiteko...)

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Albiztur. Udaltaldearen aurkezpena egingo dute udaltxean. Horrez gain herriaren egoeraz ariko dira. Bilerak irekia da.

Añoeta. Alkartasuna biltokiak bazkaria antolatuta du San Inazio Egunerako, hilaren 31n, 14:00etan, 16 eurotan. Ondoren dantzaldia izango da. 50 laguntzako lekua dago eta gutxi batzuk falta dira kopurua betetzeko. Izen-ematea, biltokia 18:00etara eta 20:30era.

Tolosa. Tolosako Musika Bandak dantzarako doinuak eskainiko ditu Plaza Berrian 22:30etik aurrera, Gau Giroen baitan.

Tolosa. Ezpeleta ostalarien elkarteak lagunduta Cadizeko (Espainia) Chirigota ariko da Alde Zahareko kaleetan 19:00etatik 21:00etara, eta ondoren, Gaugiroko kontzertuaren ostean berriro ere.

Tolosa. Tolosa CFren 39. Paleta Txapelketako finalak jokatuko dituzte Berazubiko frontoian, 19:00etatik aurrera.

Villabona. Koadrilen Eguna izango da gaur; egitaraua: 11:00etatik aurrera txaranga eta haur jaialdia; 13:00etan txarangaren igoera Etxeondora; 14:30ean koadrilen bazkaria; Incansables txarangaren kalejira; 19:30ean Kupela taldea; 23:30ean Oinkari eta L'Esbart Sant Julia dantza taldeak; 00:00etan Kupela taldea.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leizta. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.
Tolosa. Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa...
18:00-20:00. Tolosaldeko ahotsa (errepikapena).
20:00-21:00. Asteko onena.
21:00-22:00. Igo bolumena.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako onenen artean

TOLOSALDEA ▶ Usabal kiroldegian Gipuzkoako Txapelketa jokatu berri dute eta Tolosaldea IKT Gipuzkoako hirugarren talderik onena izan da



Tolosaldea IKT igeriketa taldeko igerilariak, Usabalen aritu ziren Gipuzkoako Txapelketan. HITZA

ERREDAKZIOA

Igerilarien harrobia indartsu dator Tolosaldean. Hala erakutsi zuten, bederen, Usabal kiroldegian Gipuzkoako Txapelketan lehiatu zirenek. Bertan Tolosaldea IKT taldea Gipuzkoako hirugarren talderik onena izan zelarik.

Guztira talde tolosarraren 23 igerilari hartu zuten parte eta «emaitza bikainak» lortu zituztela jakinarazi dute arduradunek. Igerilari guztien lanarekin gustura azaldu ziren, baina batik batik bat Itziar Oteiza, Jokin Otaegi eta Eneka Muñagorriren lanak goiraipatu zituzten. Lehengoa 50 metrotan eta bizkarrez 200 metrotan bikain aritu zen; Otaegi eta Muñagorri txapelkun izan ziren 400 metro estiloetan eta azken honek 400 metro asketan ere txapeldu-norde egin zuen.

Hauekin batera, beste igerilari askok euren marka pertsonalnak hobetu zituzten, eta «txapelketa ona» burutu zuten. Besteak beste, Pablo Uzkudun, Ion Azpiazu, Iraia Privado, Amaia Pagola, Ekaitz Privado, Iosu Carrera, Nestro Eetxart, Leire Muñagorri eta Tamara Pe-lareiz goiraipatu dituzte.

AGURRAK ▶



ZORIONAK
Saioa (Bidania).
Gure neska bikik 5 urte egin ditu. Zorionak!



URTE ASKOAN
Inazio Rekondo eta Dioni Etxarren.
Zorionak zuen urrezko ezteletan, familiaren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZaren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZaren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

hitza agurren tarteak
Urtebetetzak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...